

# BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 182. alea - 2014ko otsaila



**Kulunka taldea, herria  
dantzan jarri nahian**



# SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13  
Tel.: 943 192 386  
Deba (Gipuzkoa)



## ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:

Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460  
E-mail: asketa@telefonica.net  
www.asketa.net

ALMACÉN:

Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9  
20850 MENDARO (Gipuzkoa)



# ABEL

## Kristaldegia

Mota guztietako kristalak  
Lan kristalarasak

Ibaiondo, 2 • 48700 ONDARROA (Bizkaia)

Tel. 946 833 269 • Fax 946 134 291 • E-mail: abel-kristal@euskalnet.net



www.aukera-inmobiliaria.com  
Aukerarik onena!

943 12 13 95



## URDAITEGIA AITTOLA HARATEGIA

Astillero, 3  
Tlfnoa.: 943 191 776  
20820 DEBA

## LENTZERIA



## MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



## kutxa



## kutxabank

## RAIKETAK S.L. SAGARMIÑA

Hondartza, 3-4 behe - Apartado, 31  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel./Fax: 943 192 249  
Mugikorrek: 629 639 685 / 629 641 940  
sagarmina@sagarmina.com  
www.sagarmina.com

## haizea estetika

Tlf. 943 029 607  
Iturkale 22. 1 eskubia  
sarrera Zesterokua plazaatik

## ISABEL FRUTADENDA

Sokagin Kalea, 2 behe - 20820 DEBA  
943 029 186

**AZKUNE**  
FRUTA PRODUKZIOA ETA ZERBITZUA  
197Setik zuekin!



Tel.: Ostolaza, 3  
943 192 057  
20820 DEBA

## Calbeton



## JATETXEA

Agustín  
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platera  
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea  
Tlfnoa.: 943 191 970  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

## L.A.

## LARRAMENDI ANAIK, S.L.

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Tlfnoa.: 943 021 959  
Mobila: 670 411 786  
Tel.-Fax: 943 191 782

ARTZABAL AUZOA  
20820 DEBA (Gipuzkoa)



San Roke Kalea 6, DEBA  
telf.: 943 02 99 63  
e-mail: hazirik@gmail.com

## Jari zure publizitatea Berriketan aldizkarian!

## Zuhatzza

943 191 383  
berriketan@zuhatzza.com





Ifar kalea, 12 behea  
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83  
Aldizkariaren e-maila:  
[berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com)  
Elkartearen e-maila:  
[koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com)

**Argitaratzailea:**  
Zuhatza Euskara Elkarte

**Erredakzio taldea:**  
Goizane Aizpurua,  
Mikel Aizpurua,  
Koldo Aperribai,  
Izaro Aulestiarte,  
Nagore Dorronsoro,  
Lukax Dorronsoro,  
Xabier Laka,  
Migel M.Lekube (Lutxo)  
Ina Oartzabal eta  
Eider Zulaika

**Azaleko irudia:**  
Nere Oria

**Publizitatea:**  
Joseba Escudero eta  
Juan Mari Gurrutxaga  
Tlfnoa.: 943 19 13 83  
943 19 26 94

**Logotipoaren diseinua:**

Iñaki Elosua

**Maketazioa:**

Leire Rubio

**Banaketa arduraduna:**

Juanma Oartzabal

**Inprimategia:**

Euskalinpri

**Tirada:**

1.400 ale

**Lege gordailua:**

SS-246-2009

ISSN 2171-7656

**OHARRA:**

*Berriketan-ek* ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) helbidera bidali beharko dira, hilabeteko azken astelehena baino lehen.

**ARGITARATZAILERAK**



**LAGUNTZAILERAK**



Debaiko Udala



HELMURAZA, HEZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURAREN  
HEZKUNTZA POLITIKAREN BARRUKANALAK  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA  
Vitoria-Gasteiz



Gipuzkoako  
Foru Aldundia

# aurkibidea

05-06

Ibon Urkia, "Txakurkeritan";  
Debako Gazte Asanblada,  
"Zementuzko harresietatik,  
elkartasunezko harresietara".

08-09

ALBISTEA

Literatur lanak  
aitita-amamentzat



Ander Salegi

10

LABURRAK

Talo Eguna Lasturren,  
Zubeltzu bertso paper sariketa...



Ander Salegi

15

ALBISTEA

Itsas denboraleak utzitako  
arrastoa, iruditan



16-17

KIROLAK

Zurrunbilo taldeak Kantauri  
Surf Liga irabazi du;  
Ibai Perez de Albeniz Salegi,  
eskubaloian txapeldun...



18

ZERBITZUAK



*Berriketan*-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: *berriketan@zuhatza.com* edo *koordinatzailea@zuhatza.com*.

## Zuhatza Euskara Elkartearen batzar orokorra otsailaren 25ean izango da

*Zuhatzakide* agurgarria:

Lerro hauen bitartez urteko Bazkideen Batzar Orokorrerako deialdia egiten dizugu. Bertan, 2013. urteak eman duenaren berri eman eta etorkizunerako ditugun asmoak zurekin (BAZKIDE) konpartitu eta adostu nahiko genituzke. Batzarra datorren otsailaren 25ean (asteartea) egingo dugu, arratsaldeko 19:00etan, Zuhatzaren bulegoan (Ifar kalea 12, behean). Hitzordura hurbiltzerik ez baduzu, zure proposamen, kritika edo iradokizunen berri emateko

Zuhatzaren bulegotik pasa edo gurekin harremanetan jarri (943 19 13 83 telefono zenbakira deituta edo [koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com) helbidera idatzita).

Batzarrean 2013ko gestio-balantzea eta 2014rako egitasmoak eta aurrekontuak azalduko ditugu (betiko legez, galdera-erantzunentzako zein iradokizunentzako tartarik ere izango da).

Euskara eta euskal kulturaren aldeko dinamikari jarraipena eman ahal izateko, Zuhatzak behar-beharrezkoa ikusten du elkarteko

bazkideen inplikazioa eta babes.

2013garrena urte oparoa izan da euskararentzat, eta hori denon borondateari esker lortu da. Euskalgintzak bizi duen egoera ekonomikoa, ordea, ez da hain samurra. 2014an ere lanean gogotsu eta ilusioz jarraitzeko asmoa dugu. Hurbil zaitez Zuhatzara, gurekin batera hau guztia egitera. Ateak zabal-zabalik dituzu!

Besterik gabe, otsailaren 25eko batzarrean elkar ikusiko dugulakoan, agurtzen zaitugu.

*Zuhatza Euskara Elkartea*

Seven Clovers  
Irish pub

Gozatu gure garagardoa

Hondartza, 11 • 20820 DEBA • Tel. 943 191 295



Bar LOREA

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095





# IBON URKIA

## TXAKURKERITAN

Abuztu hasierako egunsenti hura sargori zetorren oso, hego ukitudun haize epelak are hezeago bihurtuz giroa. Ilunabarrak goizeko argiari bide eman orduko hasiak ziren aurrera eta atzera goiztiarrenak. Egunerokotasuna zerion goiz likits hura, ordea, berehala bilakatu zen ezohiko. Zumardiari bira ematetik zetorren gizonak errepidea zeharkatu eta Portu kalean barrena zihoala Ostolazaren erlojura begiratu zuenean zerbait arraroa iruditu zitzaion kalean aurrerago. Hasieran ikusitakoa siniste hutsak lanak eman zizkionez bigarrenez so egin, arretatsuago, eta baieztatu zizkion bere buruari susmoak.

-San Roke falta da!!

Barren-barrenetik irten zitzaion garraisi ozena. Unean bertan ez zen beste inor Portu kalean. Ondorioz, udaltzaingoaren bulegora sartu eta desagertu berri ematean kopeta zimurtu zioten bertan, txantxa zelakoan. Baina notiziak izan zezakeen oihartzunaz jabetuta kalera atera eta benetan ari zela konturatzean barkamena eskatu eta arkupera gerturatu ziren aho bete hortz, artean talo aurpegiz.

Santuaren itzalik ere izan ez arren txakurrak bere ohiko lekuan zirauen, zut, eta lepoan zintzilikario itxurako zerbait zeraman. Hala, nahaspilaren erdian, udal brigadakideak iritsi ziren egun gutxi barru txupinazorako erabili beharreko eskilara zekartela. Ordurako gertaera zabaltzen hasia zen herrian. Bertaratutako herritar multzoaren marmar artean aldarera igo eta lepoko zintzilikarioa eskuratu orduko idatzizko mezua ezkutatzan zuela ohartu ziren. Halaxe zioen:

*“San Roke bahitua daukagu. Azkenaldian Deban bizi garen txakurron bizi-baldintzak gero eta eskasagoak direla iruditzen zaigu. Gutxiespen, jokabide iraingarri eta debekuez nazkatzen hasiak gara. Bezainbestez, herrian ondoko kontuen gaineko gogoeta egitea besterik ez genuke nahi, hala nola:*

**Baf.** Urteko azken gauean jaurtitzen diren suziri eta antzekoak arautzea. Gure entzumen sentiberak biziki eskertuko luke.

**Bi.** Hondartzan urte osoan sartu ahal izatea, hartarako ordutegi malgua aurreikusiz.

**Hiru.** Pisu zein neurriari erreparatu gabe Euskotrenen bidaiatzeko

aukera bermatzea.

**Lau.** Prest geundeke zumardian eremu jakin bat pixaleku gisa atontzekotan berau errespetatzen ahalegintzeko.

**Bost.** Abuztuaren 14an zapi gorria jantzi ondoko lema “Gora San Roke!” izan beharrean, esaterako, “Gora San Roke eta bere txakurra!” bihurtzea. Txakurraren izena zehaztea ere egokia litzateke.

**Sei.** Herrian zehar diren iturriei agintea eraldatzea, oinaz zanpatuta isur dadin ur freskoa.

**Zazpi.** Zinez estimatzen dugu, solaskidea euskalduna izan ala ez, gurekin gehienetan euskaraz jardutea. Hitz bakan batzuk baino ikasteko gai izan direnei aintzat hartzen diegu ahalegina. También entendemos castellano. And english as well.

Ondo bidean, iradokizun eta gurariok berandu baino lehen bide egingo dutelakoan, adeitasunez

Agur bero bana”.


Bitartean, aldarean bakarrik geratu zen txakurraren lepoko mezu zintzilikatuaren edukia publiko egin zenean, urduritasuna eta noraeza erakusten zuten herritar zenbaitzuk. Gero eta gertuago zegoen herriko jaien hasiera eta inguruak miatu arren ez zen santuaren arrastorik.

Jada etsipena nagusitzen ari zela, ustekabea, Artzabal parean, ibaian behera, kutxa moduko bat zetorrela konturatu eta segituan antolatu zen erreskatea. Kutxa barnean santuaren maskordun makulua eta bigarren mezua, laburra, ageri ziren.

San Roke onik dago.

*Txarrantzak zulatzean  
badarizue odola  
jauzi egizue, bada,  
gaindituz hesola*

Norbaiti, halako batean, hasiera amaierarekin josi eta Txarrantxolan egon zitekeela otu zitzaion. Begiratzearen ezer galtzekorik ez zutela iritzita, astirik galdu gabe, ziztu batean abiatu eta Txarrantxolako bordara iristen ari zirela inguruko txakurrak uluka entzunez egonezina zen nagusi. Txukun asko eraikitako txakurraren txabolan topatu zuten San Roke, lepotik kate motzez lotua izan arren soinean harramazka bat bera ere ez zuela.





Debako Gazte Asanblada

## Zementuzko harresietatik, elkartasunezko harresietara

**Badira jada hiru urte baino gehiago** Debatik ingelera ikasteko aitzakiarekin Belfastera bizitzera etorri nintzela. Joxe Ripiauren abestiak dion bezala: denbora ihesi doa.

Belfast ez da turismo iragarkietan erabiltzen duten argazki koloretsuetan saldu nahi diguten bezalakoa. Koloreez aparte baditu bere alde zuri, beltz eta gris tonu ezberdinak.

Ostiral Santuko akordioa sinatu zenetik, hamasei urte pasa dira eta zuri-beltz horiek oraindik nabariak dira. Horren adibideetako bat auzo errepublikar eta unionistak banatzen dituzten "Peace Line" edo bake marrak dira. Burdin, adreilu eta altzairuz egindako harresiak, guztira 34 kilometro.

Harresi hauetako batzuk badituzte euren atea, goizez ireki eta gauez ixten direnak, hala ere bertokoez ez dituzte zeharkatzen. Aipaturiko bake marrez gain, badira komunitateak bereizteko eraiki diren bestelako eraikin edo azpiegiturak, esaterako autopista, errepide eta trenbideak. Erraza da harresiaren zein aldeetan zauden jakitea, faroletan zintzilikatuak dituzten bandera, mural edota ikurrei begiratzuz gero.

Baina hiriaren erdigunea beste kontu bat da. Bertan ezinezkoa da tabernan ondoan eserita dituzun pertsonak zein komunitatetakoak diren jakitea. Askotan izena zein abizena jakinda ere ez da nahikoa izaten pertsona "klasifikatzeko", baina non bizi den galdetuz gero berehala jakingo dugu. Hauxe dugu segregazioaren ondorioetako bat.

Euskal Herrian ez dugu auzoak banatzen

dituzten harresirik, ez dago horrelako barrera fisikorik; harresi mentalak, ordea, bai. Harresi mentalak, burdinez, adreiluz edota altzairuz egindako harresiak baino errazago zeharkatu daitezke, baina bada beti hauek zeharkatu nahi ez dituenik.

Beti esan da Euskal Herriaren eta Irlanda iparraldeko gatazkaren arteko antzekotasunak asko direla, baita ezberdintasunak ere. Ulster probintziako 6 konderrietan, harresiak bi komunitate banatzeko erabiltzen dira; Euskal Herrian, berriz, elkartasunetik konpromisora salto egiteko darabilzkigu; errepresioa eta epaiketa politikoen zentzugabekeria ikusgarazteko hain zuzen.

Euskal Herriko harresiak ez dira adreiluz egindakoak, norbanakoez osatzen dira harresiak, eta ez dute inolako zementurik behar elkarrekin mantentzeko. Konpromisoa eta elkartasuna dira hori guztia elkarrekin mantentzen duten elementuak.

Gizakiok harresi asko eta zubi gutxi

eraikitzen ditugula zioen Isaac Newton-ek, baina ni ez nago ados. Euskal jendarteak badaki elkartasunezko harresi zein zubiak eraikitzen, eta horretan jarraitu behar dugu, guztiok libre izan arte.

Amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkiot Debako Gazte Asanbladari egunegun herrian egiten duten lanagatik eta artikulu hau idazteko eman didaten aukeragatik.

Urtemugaren lemak dioen bezala: Gazte, borrokari, antolakuntzari, etorkizunari heldu!

*Koldo Huidobro*





# Ehundik gora ikasle eta eskaintza berritzaileak Kulunka Dantza Taldearen bueltan



Deban dantza erakutsi eta bultzatu nahi duen taldea dugu Kulunka. Dantza klasikoa oinarri hartuta, bestelako estilo eta diziplinak ere lantzen ditu eta 105 ikasle ditu gaur egun. Egunerok eskaintzen dituen klaseetan, dantza mota ezberdinak ikasten dituzte adin guztietako herritarrek; eta klaseetan landutakoaren erakustaldiak ere egiten dituzte urtean zehar emanaldi ezberdinetan parte hartuz. Otsailaren hasieran Kulunkak salsa ikastaroa abiatu du, eta horrek eman dio aitzakia *Berriketan*-i dantza taldearengana jotzeko. Kulunkaren izaeraz, ibilbideaz, proiektuez... aritu gara solasean.

## Noiz sortu zen Kulunka dantza taldea?

Kulunka Dantza, berez, 2012ko irailean sortu zen. Baina Deban eginkizun berean ibili den dantza eskola duela 25 bat urte sortu zen. Arrazoi ezberdinengatik, esku ezberdinetatik pasa da eta izen ezberdinak hartu ditu, gaur egungo Kulunka Dantzara iritsi arte.

## Nork osatzen du taldea?

Kulunkak 105 ikasle ditu gaur egun. Lau urtetik gorako edonork har dezake parte gure taldean. 10 talde ezberdinetan banatuta gaude, adin eta dantza mailaren arabera. Azken taldea, hain justu, iaz sortu genuen, herritarren eskaerei kasu eginez; aurrez inoiz dantza egin ez duen pertsona helduen taldea. Oso harrera ona izan zuen ideiak eta gaur egun 10 kideko taldea dugu martxan maila horretan. Kulunkarentzat oso polita izan da talde honen sorrera, orain arte egin dugunarekiko ezberdina delako eta Kulunkan dantza egiteko tokia denok dugula adierazten duelako.

Taldeko dantzari kopurua ikusita eta dantza maila hobetu nahian, irakasle bat daukagu, Naroa Gurutzeta donostiarra. Dantzan lizentziatua da, Alicia Alonsoren Madrilgo eskolan, eta esperientzia zabala du dantza munduan. Koordinatzaile lanetan, berriz, Alaitz Izaga daukagu.

## Zein dantza mota lantzen du Kulunkak? Diziplina ezberdinak daude tartean, ezta?

Eguneroko klaseetan oinarri bezala dantza klasikoa lantzen dugu, hori baita dantza guztien oinarri. Baina klasikoaz gain estilo ezberdinak lantzen dira, bai egunerokotasunean edota antolatzen ditugun ikastaroen ere: dantza garaikidea, jazz, funky, salsa... Gure emanaldietarako ere oso dantza mota ezberdinak sortzen ditugu.

## Zertan oinarritzen da zuen jarduerak?

Gure urteko jardueran, eguneroko lana kurtsu osoko klaseak aurrera eramatea da, dantzari guztiek dantza teknikak ikas dituzten. Baina ez ditugu ahaztu behar urtean zehar ematen ditugun emanaldiak, Deban edota herritik kanpo. Horien prestaketa ere oso garrantzitsua da taldearentzat.

Bestalde, aurten ikastaro motzak antolatzen hasi gara eta horiek izan duten harrera ona ikusita, aurrerago ere halakoe-tan lan egingo dugula erabaki dugu, dantza estilo ezberdinetako ikastaro motzak emanez. Herritar guztiei zuzenduta, noski.

## Funky ikastaroa, pilates haurdunentzat...

Deban "ballet talde" bezala ezagutu izan gaituzte beti. Asko ginen, baina beti berdinak ginen dantza munduan genbiltzanok. Orduan, hori aldatzeko ideiarekin eta herritarren nahiak entzunez publiko guztientzako ikastaro batzuk antolatu ditugu. Gabonetan 3 eguneko Funky ikastaroa izan genuen; arrakasta handia izan zuen, adin eta maila ezberdinetako 4 taldetan banatuta 46 pertsona funky dantzatzen jarri genituen. Ziur dugu ikastaro hau errepikatuko dugula. Haurdunentzako eta erditu berri direnentzat Pilates ere eskaini genuen, baina ordutegi arazoak tarteko, ezin izan dugu ikastaroa aurrera atera. Hil honen hasieran salsako ikastaroa jarri dugu martxan eta honek ere arrakasta handia izan du. 19 pertsona elkartuko gara asteartero salsa ikasteko, eta batez ere ondo pasatzeko. Ikastaro honetan, mutila baldin bazara, badugu plazaren bat oraindik.

Urtea amaitu baino lehen oraindik erabaki gabe dauden ikastaroak eskaini nahi ditugu: dantza garaikidea, dantza afrikarrak, gorputz espresioa...

## Berriki lokal berria ere inauguratu zenuen. Ikasturte berria, lokal berria?

Bai, aurtengo ikasturtea lokal berriarekin hasi dugu. Zesterokua Plazan dago, eta lokalak asko lagundu du taldea indartzen; batez ere, orain ordutegi askatasuna daukagulako. Alde batetik, orain gure dantzariak beraien beharretarako entsegu lokal bat daukate behar duten guztietan. Eta, bestetik, aipaturiko ikastaroak egiteko aukera ere ematen digu lokala izateak, hala dantza herritarrei zabalduz.

## Aurrera begira zer asmo du Kulunkak?

Kulunkaren asmoa orain arte bezala herrian dantza bultzatzea da eta horretarako orain arteko bidea jarraituko dugu; klaseetako eguneroko lana, ikastaro ezberdinak antolatu eta, noski, emanaldiak eskaini eta emanaldi berriak bilatu.

## 2014rako emanaldi asko lotu dituzue?

Otsailaren 28an Bergaran arituko gara, urtero bezala Bergarako banda, orkestra eta abesbatzarekin prestaturiko emanaldi batean. Apirilean, Dantzaren Nazioarteko Eguna ospatzeko eskolako dantzariak kale-atera aterako dira herritarrei gure eguneroko lana erakutsiz. Eta ekainean Kulunkak antolatzen duen jaialdia izango dugu; bertan eskolako ikasle guztiek hartuko dute parte koreografia ezberdinez osaturiko emanaldi batean. Antolatuta dauden emanaldi horiez gain, emanaldi berriak bilatzeko saiakeran ere arituko da taldea.

## Zein da zuekin kontaktuan jartzeko bidea?

664 06 60 00 telefono zenbakira deituta, [kulunkadantza@hotmail.com](mailto:kulunkadantza@hotmail.com) posta elektronikora idatziz edota Facebookaren bitartez (Kulunka Dantza).



Ander Salegi

## Literatur lanak aitita-amamentzat

33 lan aurkeztu dituzte Arbil Elkarteak  
antolatutako lehiaketara

Pasa den abenduaren 21ean egin zen Jubilatuen Elkartean, entitate honek urtero, DBHko I. mailako ikasle-entzatzat, antolatu ohi duen literatur lehiaketaren sari bana-keta. Hona hemen epaimahaiaren erabakia:

“Lehenbizi, zorionak DBHko I. mailako ikasleei eta literatur arloaren ardura duten irakasleei eta eskerrik asko jubilatuen elkarteari, 33 idazlantxo eder irakurtzeko aukera eman digulako.

Astiro, behin eta berriro, eta hirugarrenez ere, irakurri ondoren, lau multzotan sailkatu ahal izan ditugu idazlanak:

### \*Txukun idatziak

Oinarrizko arauak zintzo beteak dituztenak. 8 lantxo ditugu sail honetan.

### \*Oso ondo idatziak

Mezua gertagiroan egoki kokatzen jakin dutenak. 14 lan ditugu multzo honetan.

### \*Bikain idatziak

Mezua sentimenduen giro samurrean murgildua emateko gaitasuna izan dutenek osatua da multzo hau. 8 lan bikain ageri zaizkigu sail honetan.

### \*Oso bikain idatziak

Fantasiaren eremua arakatzen ausartu eta fikziozko munduan arrakastatsu barneratzen ausartu direnak dauzkagu taldetxo honetan. Hiru aukeratu ditugu, ondo kostata, bikain idatzitako 11 lanen artetik.

Fantasiari hitza ematen egokien asmatu duten hiru idazleen izen-abizenak hauetxek dira: Aitor Sagarna, “Andoni, espia jubilatua” lanarengatik; Mikel Z., “Pello zapataria” lanarengatik; eta Ane Ladera Osa, “Amamari gutuna” izenburuko lanarengatik.

Zorionak parte-hartzaile guztioi. Ahaleginak ekarriko dizkizue emaitzak, egun edo gero”.

Lehen saria jaso zuen idazlana oso-osorik irakurtzeko aukera eskaintzen dizu *Berriketan*-ek.

Egun hartan pozik esnatu nintzen, berriz 20 urte banitu bezala. Gosaldu bezain laster, jubilatuen elkartera joan nintzen, lagunekin elkartzera. Ene!! Barkatu, oraindik ez dut neure burua aurkeztu.

Ni Andoni Sagarna naiz eta, oraintxe bertan, jubilatua nago; 78 urte baitaizkat. Baina, nire gazte sasoiaren, soldaduska egin ondoren, frankismoaren aurka borrokatu nintzen; beno, frankismoaren kontra eta euskararen alde. Familia bat ere sortu dut: lau seme eta bi alaba dauzkat; baita bederatzi biloba ere. Alabetan bat hil egin zitzaigun, egun bat besterik ez zuela.

Lehen esan dudan bezala, egun hura perfektua zen. Kartetan jolasten hasi nintzenean, ordea, nire bizitzak zerbait falta zuela ohartu nintzen: abentura. Eta, hala pentsatu nuen neurekiko: “Aspertu samar nago egun guztian kartetan eta bingoan jolasten. Abentura bat behar dut nik: mundua ezagutu, leku berriak esploratu... Eta badakit zer egin horretarako”.

Orduan soldaduskako lagun bati deitu nion telefonoz, haren biloba Estatu Batuetako agente sekretua baitzen, J agentea.

-Egun on, Mikel! Andoni naiz. Gogoan al nauzu? Elkarrekin egin genuen soldaduska.

-Bai, Andoni, gogoan zaitut. Ez naiz hain urrun bizi: 15 km. ingurura dago Zumaia.

-Beno, mesede bat egin behar didazu.

-Esan, ba.

-Nire bizitzaz aspertzen hasia nago eta, zure bilobak bere agentzian sar nazala nahi nuke. Abentura baten beharra daukat.

-Ba, zorte oneko zaude: nire biloba Jon (J agentea) bisitan etorri zait, bere oporrak aprobetxatzu.

-Esaiozu, ba, telefonoan jartzeko.

-Kaixo, Andoni! Jon naiz. Nire aitona oso ondo hitz egin izan dit zutaz.

-Jon, sar nazazu zure agentzian, mesedez.

-Ongi da. Ahaleginduko naiz.

Jonek deitu zion bere nagusiari eta, ordubete inguruko elkarriketa baten ondoren, agentzian sartu ninduten.

Handik bi egunera, lagunak agurtu eta, Washington hirira joan nintzen. Jonek egoitzaren kokapena adierazi zidanez, zuzen heldu nintzen hara.

Han jendea ezagutzea izan nuen lehenbiziko lana. Ondoren lankideak aurkeztu zizkidaten: J agentea (nire lagunaren biloba) eta K agentea.

Hurrengo egunean, eginkizunak hasi ziren. Lehenik han bertan, Washingtonen; ondoren, Los Angelesen; jarraian, Berlinen...

Sinestezinak ziren egin behar izan genituen gauzak. Baina, onena ez zen hori; baizik eta eskuartean genituen armak: plasma pistola, lanzallamasak...

Hala ere, ez nuen ikusten hurrengo betebeharrak zenbaterainoko arriskua zuen. New Yorken kohete espazial bat bota behar zuten, eta, estralurtar oso arrisksu batengandik babestu behar genuen. Hark kohetea manipulatu gero, milioika pertsona hilko baitziren. Behar genuen informazioa jaso ondoren, hara joan ginen. Nik ikusi nuen estralurtarra, eta inguratu egin genuen. Hala ere, gauza bat ez genuen kontuan hartu: denboran zehar bidaiatzeko erloju bat zeukan. Momentu perfekturaino itxaron zuen berak. Ondoren, niri heldu zidan, eta 1958. urteraino eraman ninduen. Segidan, ni han utzi ninduen eta desagertu egin zitzaidan. Nik ez nekien zer egin; oso belhurturik nengo. Baina, orduan konturatu nintzen, garai hartan



# Andoni, espia jubilatua

ere agente sekretuen egoitza bazela.

Hara joan nintzen berehala. Heldu bezain laster, estralurtar hari buruzko informazio bila hasi nintzen. Bila nenbilena aurkitu nuenean ikaragarri poztu nintzen. Estralurtar hura Lur Planetan bizi zen, Washington hirian, gainera. Gizaki itxura zeukan eta, horregatik ez zuen inork antzeman. Nire zorterako, bere argazki bat aurkitu nuen eta, horrekin batera, bere bizilekuaren kokapena. Hori dena paper batean apuntatu ondoren, beregana abiatu nintzen. Baina, orduan, egoitzako nagusiak ikusi ninduen, eta nor nintzen galdetu zidan. Historia guztia kontatu behar izan nion. Dena ulertu zuen berak; ez dakit nola, baina, ulertu egin zuen. Agente bat (J agentea, K-ren aita) bidali zuen niri laguntzera; baita orduko teknologia, punta-puntako armak eta motorrak nire esku jarri ere.

Orduan bai, estralurtarraren bila joan eta, etxeko atean jo genuen. Eta, hark atea ireki zigunean, pistolekin tiroka hasi gintzaizkion. Zoritxarrez ihes egin zigun, korrika. Ihes egin bazigun ere, ordea, denbora laburrerako izan zen, atzetik jarraitu baikenion. Berak kotxea hartu zuen eta guk motorra. Hiri guztian zehar ibili gintzaizkion jarraika, harrapatu genuen arte. Orduan, kotxe barrura tiro egin nion eta tripan jo nuen, eta, autoa horma baten aurka puskatu zen. Eta puskatu esaten dudanean, hau esan nahi dut: kotxeak bi zatitan amaitu zuen. Atzeko aldea txiki-txiki eginda zegoen. Eskerrak estralurtarra aurreko aldean zihonan! Aurreko aldea ere ez zen oso ondo gelditu: motorra ketan, bolantea apurtua, gurpilak lehertu egin ziren eta ez zegoen aterik. Guk, kotxera hurbildu eta estralurtarra atera genuen. Bizirik zegoen. Ondoren korrika alde egin genuen handik; eta eskerrek!, ibilgailuak su hartu baitzuen. Agenteen egoitzara eraman genuen bahitua. Hango laborategian espetxeratu genuen. Lehenik, ordea, erlojua kendu genion.

Hurrengo egunean, denak agurtu nituen eta orainaldira itzuli nintzen, 2013. urtera. Lortu nuen azkenean!

Iritsi bezain laster Jonengana joan nintzen. Agentziaren egoitzan aurkitu nuen. Han denak oso triste zeuden, hilda nengoela uste zuten eta. Orduan, hala esan nien:

-Zer ari zarete denok negarrez. Gora animo horiek! Zuek bai

zaretela sentimentalak!

-Baina, A... A... Andoni! Zu ez al zeunden hilda? -galdetu zidan Jonek.

-Nola egongo naiz ni hilda? Ni euskalduna naiz, euskalduna!

-Bai, bai, euskalduna zara -esan zuen K agenteak-, baina nola desagertu egin zinen estralurtar hura harrapatzerakoan...

-Oso simplea. Esan dezagun bidaiatxo bat egin nuela.

-Bidaiatxo bat? Nora? -Jonek.

-1958. urtera.

-Txantxetan ari zara, ezta? -esan zuen nagusiak.

-Txantxetan ni? Ez jauna!

-Ba, orduan, zer azalpen du horrek? -denek batera.

-Azalpena? Hara: estralurtarrak erloju berezi bat zeukan eta, harekin denboran zehar bidaia zezakeenez, berarekin eraman ninduela.

Gero historia guztia kontatu nien eta, ondoren, eginkizun bat jarri ziguten. Nik, ordea, zera esan nien orduan:

-Barkatu adiskideok, baina, nik Euskal Herrira itzuli beharra dut.

-Zergatik? -esan zuten denek batera.

-Jada nahiko abentura egin dudalako.

Denak barrez utzi eta, maleta egin ostean, egoitzatik irten nintzen; ez, ordea, lagunei agur egin gabe:

-Agur denoi! -esan nien- Jon, ez ahaztu nitaz! K, lehen kontatu dizuedan gertakariko agentea zure aita zen.

Jarraian, aireportura joan nintzen. Handik hamar bat ordura iritsi nintzen Bilbora. Itxaroten neukan nire familia eta, denok elkartu ostean historia guztia kontatu nien Debara bidean. Egundoko ongietorria egin zidaten herrian, festa eta guzti.

Ordotik aurrera ez naiz bizi guztian herri honetatik atera, bertan oso zorionsu izan naizelako: lagunekin denbora pasa, kartetan eta bingoan jolasten, hurbiltzen zitzaizkigun ume koskorrei istorioak kontatzen,...

Beno, istorio hau gustatuko zitzaizuela espero dut. Niri behintzat asko gustatu zait, eta idazten eman dudana denborak eta ondo idazteko egin dudana esfortzuak beren fruitua eman dutela uste dut.

*Aitor Sagarna*



*Ander Salegi*

## Izarraitz Bizirik auzo elkarteak antolatutako Talo Eguna Lasturren



Urtero bezala, aurten ere otsailaren lehenengo igandean Talo Eguna ospatu zen Lasturren. 15 urte baino gehiago daramatza Izarraitz Bizirik auzo elkarteak festa hau antolatu eta ospatzen. Eguna polit eta atsegina izaten da denentzat, bai auzo-tarrantzat eta baita bertara inguratzen direnentzat ere.

Izarraitz Bizirik-en helburu nagusia Lasturko beharrak asetzea da, bere nortasuna zainduz, eta bestelako ekintza anitzen artean urtero-urtero antolatzen dugu Talo Eguna. Horretarako, egun berezi honetan, errotak martxan izaten ditugu hurbiltzen den orok goza eta ezagutu ditzan, hitzaldia izaten da hitzorduari kultur ukitua eman nahirik, auzolanean taloak egiten ditugu gero saldu eta auzoaren beharrak asetzeko helburuarekin eta, nola ez, urtero-urtero erromeria ez da falta izaten.

Benetan pozgarria eta aberasgarria da auzo guztia elkarlanean ikustea; indarra ematen dio egunari eta adin ezberdinetako jendeak parte hartzean bizikidetzaren hobetu eta helburuak lantzen joateko indarrak batzen laguntzen du.

Espero dugu datorren urtean ere Talo Eguna ospatzea. Animatu eta gerturatu Lasturra, merezi du eta!

Izarraitz Bizirik



## Udalak 6.677.304 euroko aurrekontua onartu du 2014rako

Pasa den otsailaren 6ko plenoan onartu zituen Debako Udalbatzak 2014rako aurrekontu orokorrak, Alternatiba Eraikitzen, EA, Ezker Anitza eta Aralar zein Itziar Herria Sortzen taldearen babesarekin -EAJ alderdiak, berriz, kontrako hiru bozka eman zizkien aurrekontuei-.

Aurrekontu bateratua -udal aurrekontua eta patronatuei dagokiena-, 6.972.913 eurokoa izango da (iaz ere antzekoa izan zen). Eta inbertsioetarako 135.500 euro bideratzeko asmoa du Udalak aurten.

Azken urteetan bezala, aurten ere otsailaren 6ko plenoa egin aurretik Debako Udalak hiru herri aurkezpen saio burutu zituen herritarrei udalaren egoera ekonomikoaren berri emateko.

## Abian da V. Zubeltzu bertso paper sariketa

Abian da ZUBELTZU bertso paper sariketa-ren bosgarren edizioa. Debako udalaren eta Zuhatza euskara elkartearen arteko ekimen honek, hiru maila bereizten ditu: LHko neska-mutilak, DBHkoak eta hortik gorakoak. Maila bakoitzari ariketa diferentea egitea eskatzen zaio; lehenengo bietan gaia jarrita eta helduenean, berriz, libre lagata. Sariketa Debako eta Itziaroko herritarrentzat antolatu da eta bertsoek jatorrizkoak, argitaratu gabeak eta inon saritu gabeak izan beharko dute. Lanak aurkezteko azken eguna martxoaren 31a izango da. Horiek Debako Udaletxean edota Zuhatza euskara elkartearen entregatu ahal izango dira, esan bezala, data hori baino lehen. Lanak euskarri telematikoan entregatzea eskertuko da (CD, pendrive edo mezu elektronikoko bidez), oinarrietan agertzen diren helbideetako batean. Oinarriak [www.deba.net](http://www.deba.net) atarian kontsulta daitezke.

Sari banaketa apirilaren 11n egingo da, Agirre jauregian.



## Eskualdeko 7.000 ikasle baino gehiago, elikadura iraunkorra aztertzen

Badira 11 urte Debabarrena eskualdeko ikastetxeetan Eskolako Agenda 21 egitasmoa lantzen ari direla, gaztetxoaren artean iraunkortasuna, lankidetzaren eta partaidetzaaren balioak lantzeko asmoarekin.

Aurtengo ikasturtean (2013-2014), oro har, 28 ikastetxe ari dira parte hartzen, 7.000 ikasle baino gehiago, eta elikadura arduratsua eta jasangarria dute lanerako ardatz.

Debegesa agentziak adierazi bezala, "horrela Debabarrenen hezkuntza komunitatea bestelako elikadura-eredu baten sustapenerako agente aktibo bilakatuko da: osasungarriagoa, errespetuzkoa, justua eta bidezkoa".



BERRIKETAN GAZTEA

2014ko otsaila  
Mendata BHI-ko Prentsa Tailerrean Sortua.

Euskal Herriko txoko ezberdinetan, antzinako tradizioari jarraituz, bereziki herri txikietan, nahiz hiri eta herri handietan, inauteriak ospatzen ditugu. Toki batetik bestera egun desberdinetan ospatzen dira; ez dago data bateraturik. Zubietan eta Iturenen urtarreko azkeneko igandearen osteko lehen astelehen eta asteartean izaten dira; Tolosako inauteriak inauterien ohiko egunetan ospatzen dira. Algortan, Plentzian, Santutxun eta Errenterian, besteak beste, ohiko inauterien ondorengo asteburuan izaten da jaia.

Ihateak, ihoteak eta aratusteak izenarekin ere izendatzen dira inauteriak, tokiaren arabera. Inauteri hitza "inausi" aditzarekin loturik omen dago, arbolak inausteko garaiarekin, alegia. Aratuste hitzak, berriz, haragia jateari utzi behar zaion garaia egiten dio erreferentzia; garizuma garaian, Aste Santua baino lehen kristauak barauak egiten zituztelako eta haragirik jan gabe egoten zirelako, Jesusen heriotza zela eta sakrifizioaren bat egiteagatik.

Hego Euskal Herrian, Francoren diktaduran zehar jai hauek debekatu eta asko galzorian egon ziren. Toki batzuetan, Tolosako inauterien kasuan esaterako, jarraipena izan zuten garai hartan Udaberriko jai moduan.

Gaur egun, Gipuzkoan, Tolosa eta Donostiako hiri inauteriek biltzen dute jende gehien. Lezon molde tradizionaleko inauteria sortu zuten XX. mendearen bukaeran, Trapujale pertsonaiekin.

Debako inauteriak ez dira munduko ospetsuenak, baina ospatu egiten dira. Jendea bere mozorroarekin jantzita joaten da, txistulariak kalera ateratzen dira kaleak musikaz betetzeko. Umeentzat txokolatada bat izaten da eta aurten "harlem shake" handi bat izango da plazan gatzetxeak antolatuta.

## Badatoz inauteriak!!





# ELKA RRIZ KETA



## LANDON COTHAM

Ingelesez hitz egiten duten neska-mutil gazteak urtero etortzen dira bertoko irakasleei laguntzera. Horrela, ikasleek ingeles "natiboa" entzun ahal izaten dute. Aurten Texaseko Landon Cotham daukagu Debako Mendata institutuan funtzio hori betetzen.

### Nongoa zara?

Texasekoa naiz, Estatu Batuetakoa. Dallasetik sei ordura dago nire herria.

### Herri handia al da?

Jaio nintzen herriak 2.000 biztanle ditu, baina 250.000 biztanleko hiri batean bizi izan naiz zazpi urtez.

### Europara zatozen lehenengo aldia al da? Eta Euskal Herrira?

2010ean Bartzelonan 5 hilabetez ikasi nuen, eta hau bigarren aldia da. Euskal Herrira natorren lehenengo aldia da.

### Zer da zure herritik gehien botatzen duzuna faltan? eta zer gehien gogoratzen duzuna?

Gehien botatzen dudana faltan familia eta lagunak dira, baina baita janari pikanteak ere, hemen ez dago janari pikantea jateko ohiturarik. Debako jendea eta nire herriko jendea antzekoa da: denek ezagutzen dute elkar, eta hori gustatzen zait.

### Egin al duzu turismorik Euskal Herrian?

Bai, nahiko. Tolosa, Hondarribia, Irun eta Gipuzkoako kostaldearaino. Baina Bizkaiatik ez naiz asko ibili.

### Zein da gehien gustatu zaizun lekua?

Deba gustatzen zait, baina Getaria oso gogoko dut.

### Zeintzuk dira zure zaletasunak?

Musika sortzea atsegin dut, baita entzutea ere, kontzertuetara joatea, futbola eta saskibaloian jokatzeko.

### Badakigu musika talde bat duzula. Famatua al da?

Bai, bizi nintzen hirian ezagunak egin ginen, eta Texasen ere pixka bat bai. Baina, Estatu Batuetan ez. Estatu Batuetan kontzertu asko eman ditugu. Kontzertu batzuetan 200-300 pertsona biltzen genituen eta beste batzuetan 30ekin konformatu behar! Bi diska ditugu; interneten daude eta hemen ere badituz batzuk. Egiten dugun musika, rock eta country-aren arteko nahasketa da.

### Hobetu al duzu zure gaztelania maila?

Baietz uste dut! Baina batzuetan zaila da, ingelesez asko hitz egiten dudalako eskolan.

Baina bai, nahikoa hobetu dut. Hemen Ingalaterrako eta Estatu Batuetako lagunak ditut, eta baita hemengo eta Espainiako beste lagun batzuk ere, eta argentinarrak batzuekin bizi naiz.

### Euskaraz zerbait ikasi duzu?

Ez asko, baina hamabost bat hitz ikasi ditut eta hamaiakara arte zenbatzen dakit. Baina euskara ikastaro bat egiten hasiera noa aste honetan. Zerbait ikasi nahi dut. Hemengo kulturari eta testuinguruari buruz ikasi nahi dut. Ekainera arte hemen geratuko naiz, eta uste dut beste urtebete geldituko naizela inguru honetan; ez dakit Deban izango den, ez baita nire erabakia, baina uste dut Euskal Herrian geratuko naizela.



EGILEAK: Alex Alonso eta Maite Aldabaldetretxu



# INAUTERIAK

Oraingo honetan, Mendata ikastetxean inauteriei buruzko galderak egin dizkiegu ikasleei:

- 1.- Inauteriak gustatzen al zaizkizu?
- 2.- Zer mozerro jantziko duzu?
- 3.- Mozerroa erosi egingo duzu edo zuk zeuk egingo duzu etxean?
- 4.- Egun guztietan mozerrotuko zara?
- 5.- Non ospatuko dituzu?



## INKESTA



### Leyre Elezgarai:

- 1.- Bai.
- 2.- "Poli-puta"-rena.
- 3.- Erosi egingo dut.
- 4.- Ez, egun bakar batean mozerrotuko naiz.
- 5.- Elgoibarren.



### Jon Bollain:

- 1.- Bai, asko.
- 2.- Ez dakit, oraindik ez dut erabaki.
- 3.- Erosi egingo dut.
- 4.- Bai, noski.
- 5.- Deban ospatuko ditut.



### Paola Iñurrieta:

- 1.- Bai.
- 2.- Ez dakit oraindik.
- 3.- Erosi egingo dut.
- 4.- Bai.
- 5.- Deban ospatuko ditut.



### Kepa Agerrista:

- 1.- Bai.
- 2.- Spidermanen mozerroa.
- 3.- Etxean daukat, erosita.
- 4.- Egun bakar batean mozerrotuko naiz.
- 5.- Deban.




### Julen Arufe:

- 1.- Bai.
- 2.- Igelaren mozerroa.
- 3.- Erosi egingo dut.
- 4.- Ez dakit, baina ziur aski bai.
- 5.- Elgoibarren.



### Anne Redondo:

- 1.- Bai, asko (kar-kar-kar).
- 2.- One direction yeahhh-rena.
- 3.- Erosi egingo dut.
- 4.- Bai.
- 5.- Elgoibarren eta Deban.



# DenBord-pasa

## TXISTEA

### ZER DAUKAT?

**\*Gaixoa** medikuaren kontsultara sartu da:  
 -Mediku anderea! Azken bolada honetan oso urduri nabil! Ez dut bururik altxatzen, bakarrik egiten dut barre, ez dut jendearekin hitz egiten, arre-ta berehala galtzen dut... Batzuetan zoratu egin naizela dirudi... Zer daukat, mediku anderea?

Eta medikuak zera erantzun dio:

-lphone bat!




## HIZKI-SOPA

### Eguraldia


A	Z	T	I	A	K	E	D	A	T
U	A	A	X	L	F	E	U	X	U
S	R	E	Q	A	J	C	I	X	Z
T	R	Z	L	I	K	N	T	M	T
I	U	E	U	N	G	Q	R	F	I
E	L	H	D	O	R	Z	U	R	K
D	E	K	R	T	A	Q	M	E	Z
O	M	R	M	U	B	A	O	S	U
H	A	U	D	T	D	Q	I	K	G
S	A	R	R	A	O	I	A	O	E

arraoia  
 eguzkitzu  
 ekaitza  
 elurra  
 fresko  
 hezea  
 hodeitsu  
 lainotuta  
 trumoa  
 txingorra

## ZAZPI EZBERDINTASUNAK



## LABIRINTOA



### LAGUNTZAILEAK:



### BABESLEAK:



Debako Udala



### PRENTSA TALERRA 2013-2014

Aitor Gonzalez  
 Alex Martija  
 Unai Matias  
 Ekaitz Zubimendi  
 Kimetz Juaristi

Maite Aldabaldetrek  
 Alex Alonso  
 Julen Aristi  
 Josu Arufe  
 Iñigo Egaña

Koordinatzailea: Aritz Meabebasterretxea



## Itsas denboraleak utzitako arrastoa, iruditan

Itsas denborale ugari jasan ditu euskal kostaldeak azken asteotan. Itsaso zakarrak gogor astindu ditu gure herriko bazterrak ere eta nabarmenak izan dira denboraleak eragindako kalte materialak.

Otsailaren 2ko goizaldean, adibidez, ezohiko paisaia ikusi genuen hondartza eta zumardi inguruetan. Irudi-sorta bildu dugu horren erakusgarri:



## “Jolasten eta berziklatzen” izenburuko tailerra dakar Debanaturak

Eskolaz kanpoko jarduera berria dakar oraingoan Debanatura elkarteak. “JOLASTEN eta BERZIKLATZEN” sormen-eskulanak ikasteko tailerra eskainiko du martxotik aurrera Kultur Elkarteko gela berdean. Saioak asteazkenero burutuko dira, 16:45etik 18:15era bitartean.

Tailerra lau eta hamaika urte bitarteko haurrei zuzenduta gongo da

eta hilabete bakoitzeko 20 euroko ekarpena eskatzen du elkarteak egitasmoa aurrera eraman ahal izateko. Plaza mugatuak izango dira.

Izena emateko edota informazio gehiagorako, deitu 695 783 656 / 943 19 11 72 telefono zenbakietara edota idatzi mezua [debanatura@hotmail.com](mailto:debanatura@hotmail.com) posta elektronikora.





## Zurrunbilo taldeak Kantauri Surf Liga irabazi du

Otsailaren lehenengo asteburuan Euskadiko Surf Federazioak antolaturiko Kantauri Surf Ligaren finalak burutu ziren Lekeitio eta Debako hondartzetan. Lekeitioko hondartzan Bakio eta Lekeitioko taldeen arteko lehia burutu zen eta Debako hondartzan, berriz, Getxo, Zarautz eta Debako Zurrunbilo taldeen arteko demak izan genituen ikusgai.

Azken momentura arte lehia gori-goria izan genuen lehen 3 taldeen artean, Zarautz, Getxo eta Debako Zurrunbilo taldeen artean, alegia. Izan ere, puntu bakarreko aldea baitzeukaten finaleko lehen aurretik.

Lehenengo txandan Getxo eta Debako Zurrunbilo taldeak aritu ziren lehian eta Zurrunbilo izan genuen txandako garaile. Bigarren lehia, berriz, Zarautz eta Getxoren artekoa izan zen eta Zarauzko taldea nagusitu zen.

Lekeition burututako finalari dagokionean, Bakio taldea ez zen lehiara aurkeztu eta, beraz, lekeitiarrentzat izan zen garaipena.

Finaleko txandaren ostean, talde guztiek batera bazkari ederra egin zuten Debako Txomin jate-txean, giro ezin hobean. Bazkalostean, puntuaketa denak batu ondoren, Debako Zurrunbilo taldea izendatu zuten Kantauri Ligako irabazle.

Sari horrez gain, Zurrunbilo taldeak talde aniztasunari

emandako saria ere eskuratu zuen, azken hilabeteetan txapelketa guztietan parte hartzeko neska, mutil eta gaztetxoez osaturiko taldea aurkeztu baitu lehia guztietan.

Zorionak, Zurrunbilo!! Segi horrela!!

M.A.



### Aritz Ruiz de la Torreren garaipena Amurrioko krosean

Sasoian dago Aritz Ruiz de la Torre. *Berriketan*-en urtarrileko alean aipatu genuen bera izan zela Debako San Silbestre lasterketa herrikoian helmugaratu zen lehenbiziko gizonezkoa eta otsailarekin batera jakin dugu Amurrioko ospatutako Euskadiko Kros Labur eta Beteranoen Txapelketatik ere garaipena lortuta itzuli zela Debara.

Beteranoen kros motzean, 5,4 kilometroko luzera zuen zirkuituan lehen euskalduna izan zen Aritz, 17'34" ko denborarekin, eta helmugara bigarren iritsi zen, Abdelilah El Manaiaren atzetik (17'29").

Zorionak, Aritz!





# Ibai Perez de Albeniz Salegi, eskubaloian txapeldun

13 urte ditu Ibaik eta DBHko 2. mailan ari da ikasten. Eskubaloia Eskola Kirolean ezagutu zuen eta, 10 urterekin, horretan aritu nahi zuela ikusi zuen garbi.

Astean behin Elgoibarra joaten hasi zen, Eskola Kirolean eta futboleant aritzeaz gain. Azkenik, 11 urterekin astean bi aldiz joaten zen entrenatzera, Eskola Kirola eta asteburuko partiduaz gainera. DBHko I. mailan, 3 egunetan entrenatzeaz gainera, Gipuzkoako selekzioan zegoenez, asteburu gehienetan 2 partidu izaten zituen.

Ikasturte honetan Euskadiko selekzionako konbokatutakoa zuten. Espainiako Eskubaloiko Kopako txapel-dun gelditu ziren eta bederatzigarrenak Espainiako txapelketako sailkapen orokorrean.

Esan behar da Debatik beste batzuk ere joaten direla Elgoibarra, eskubaloian entrenatzera: Iñaki Aldazabal, Andoni Garrido, Sara Lili, Ander Iglesias eta Iñaki Amileta.

Eskubaloiaz aparte, Ibaik gustuko du bidaiatzea, baita iraupen eskia eta kirola egitea ere oro har.

Galderatxo batzuk egitera joan gaitzaizkio:

## Noiz hasi zinen eskubaloian?

10 urterekin hasi nintzen, baina futbol eskolan eta Eskola Kirolean ere aritua nintzen.



## Zergatik eskubaloia?

Eskola Kirolean ezagutu nuen eta asko gustatu zitzaidan, futbola baino gehiago.

## Ba al dago zaletasunik Deban?

Nik ezetz uste dut.

## Nora joaten zara entrenatzera?

Elgoibarra, Sanlo eskubaloiko taldearekin aritzen naiz.

## Deban egon beharko luke?

Badago jendea futbola gustatzen ez zaiona eta beste kirol aukera batzuk eduki beharko lituzkete.

## Euskadiko Seleksio taldearekin egon zara; non? Zein emaitzekin?

Lehenengo urtean Gipuzkoako selekzioarekin ibili nintzen eta Euskadiko txapelketa irabazi genuen. Ikasturte honetan Euskadiko Seleksioan hartu nauten; 40 jokalaritatik 16 hartu gaituzte eta Gabonetan Bilbon kontzentratuta bost eguneguz egon ondoren, Gijona joan ginen, Espainiako txapelketara. Han Espainiako Kopako txapeldunak izan gara.

## Zein kategorian jokatzeko duzu?

Infantiletan.

## Animatuko al zenituzke lagunak eskubaloian jokatzera?

Bai, noski. Saiatu ere egin naiz; baina, ez da erreza. Dena dela infantiletan Debatik beste batzuk ere joaten dira Elgoibarra: Andoni Garrido, Iñaki Solozabal, Sara Lili...

## Zer suposatzen du zuretzat eskubaloian jokatzeko?

Oso ondo pasatzen dudala eta lagun berriak egiten ditudala.

Berriketan



**urlo**  
SERVICIOS INMOBILIARIOS  
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

**API**  
Nº 379


Higiezin Zerbitzuak  
Aholkularitza  
Higiezin Agentzia  
Komunitateen administrazioa  
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo  
Apartado 3  
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471  
Tel./Fax: 943 192 303  
urlo@urlosi.net

**MAXI BAR**

Lersundi, 28  
Tel.: 943 191 206  
Deba (Gipuzkoa)



## Agenda

## Otsailak 23, igandea



-12:00-14:00. **Gure Esku Dago batzordeak antolatutako ekimena**, Foruen plazan. Gure Esku Dagoren autobusa etorriko da. Bertan, bideoklipak ikusi eta ekainaren 8an erabakitzeko eskubidearen alde Durangotik

Iruñeara herritarren artean osatuko den giza kateari (123 km) atxikimendua emateko aukera egongo da.

## Otsailak 25, asteartea

-19:00. **Zuhatza Euskara Elkartearen batzar orokorra**, Zuhatzaren bulegoan (Iifar kalea 12, behean).

## Otsailak 28, ostirala

-**Azken ostirala**. Euskal preso eta iheslari politikoen eskubideen aldeko elkarretaratzea. Foruen plazan.

## Otsailaren 28tik martxoaren 4ra

-**Inauteriak**. Egitarau berezia antolatuta du Jai Batzordeak. Ohiko bideetatik iragarriko dira ekimenak.

## Martxoak 8, larunbata

-**Emakumearen Nazioarteko Eguna**.

-**Gazte Eguna Itziarren**.

Aurten moztrotzeko gaia: Superheroiak. Andutz Biltokiak antolatzen du hitzordua eta egun osoko egitaraua prestatuko du.



## Martxoak 9, igandea

-8:30. **Mendi irteera**. Bailarako ibilaldi neurtua, Burdin Kurutz M.T. eta Luzaro ikastetxeak antolatuta.

-17:00. **Ipuin kontaketa**, herritarrak herriko neska-mutilei kontari. Agirre jauregiko ispiluen gelan burutuko da. 17:00etan HHko 3, 4 eta 5 urtekoentzat; 18:00etan, LHko 4., 5. eta 6. mailako neska-mutilentzat.

## Lehiaketa

-V. **Zubeltzu bertso paper sariketa**.

Abian da Zubeltzu bertso paper sariketaren bosgarren edizioa. Debako Udalaren eta Zuhatza Euskara Elkartearen artean antolatutako lehiaketa da. Sariketaren inguruko informazio gehiagorako eta oinarriak kontsultatzeko, ikus [www.deba.net](http://www.deba.net) ataria eta aldizkari honen 10. orrialdea.

-VI. **Elkar Ilustrazio eta Ipuin Lehiaketa**.

Haurren eta gazteen artean irakurzaletasuna bultzatzea du helburu. Horretarako, bi modalitate antolatu dira, haur eta gazteen adinaren arabera. Ipuin bat ilustratu beharko dute batzuek, eta ilustrazioak ipuin bilakatu besteez. Oinarriak: [www.elkar.com](http://www.elkar.com) atarian.

## Ikastaroak

-**KZguneak** ikastaro ugari eskainiko ditu otsailean (arratsalde) eta martxoan (goizez): irudi digitalen tratamendua, oinarriko interneta, Google Maps eta Earth... Euskaraz eta gazteleraz izango dira ikastaroak.

Informazio gehiagorako, kontsultatu [www.kzguna.net](http://www.kzguna.net) ataria edo deitu 943 02 36 29 telefono zenbakira.

-**UEUk** prest dauka udaberrirako ikastaroen eskaintza. Guztira 12 ikastaro antolatu ditu *on line*, Eibarren eta Iruñean eskaintzeko (oroimen historikoa, jendaurreko komunikazioa, Moodle, argazkilaritza...). Matrikulatzeko epea zabalik dago.

Informazio gehiagorako, kontsultatu [www.ueu.org](http://www.ueu.org) atari digitala.

## I. Manuel Mateos Memoriale

-**I. Manuel Mateos Memoriale** ospatuko da datorren martxoaren 8an (larunbata) Deban. Herri krosaren irteera arratsaldeko 17:30ean izango da eta parte-hartzaileek 8,5 kilometroko ibilbidea burutu beharko dute.

Memorialean izena emateko epea zabalik du dagoeneko Deba Extreme Kirol Taldeak. Inskripzioak egiteko, kontsultatu [www.herrikrossa.com](http://www.herrikrossa.com) ataria.

## ZAINTZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara



Zalduegi: **martxoak 7, 8, 9, 17, 18, 19, 20.**

Burgoa Zuazo: **otsailak 21, 22, 23.**  
**martxoak 3, 4, 5, 6.**

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

## DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201

BURGOA ZUAZO: 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: otsailak 22

martxoak 1 eta 22

BURGOA ZUAZO: otsailak 8 eta 15

9:30 - 13:30






**MULTIÓPTICAS UZURI**

OSTOLAZA, 7 • 20820 DEBA  
TEL. 943 19 21 92

**MULTIÓPTICAS Uzuri**

ZURE  
ENTZUMENA  
ZAITZEN



**Mikel**

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206  
Tel.-faxa: 943 191 774  
Hondartza, 10 - behea  
**20820 DEBA (Gipuzkoa)**  
mikeliturgintza@euskalnet.net  
www.mikeliturgintza.com

**A D**

**ASESORIA DEBA C.B.**

JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617  
Eduarne: 669 895 619

Tel.: 943 192 127  
Fax: 943 192 482  
HONDARTZA, 2 - BEHEA  
20820 DEBA (GIPUZKOA) ase.deba@teleline.es

**atari**

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA  
Lersundi 1, behea 20920 - DEBA  
Tel: 943192263  
www.atarideba.com

**Lizaso**  
Autozerbitzua

Lersundi kalea, 21  
Tlfnoa: 943 19 27 29



**ITXAS GAIN**  
Taberna  
**ITXAS GAIN**

Hondartza ondoan  
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576  
20820 DEBA

**oskarbi**

Pintxoak  
Ogitartekoak  
Plater Konbinatuak

Lersundi kalea, 9  
Tel. 943 029 488 - 918 644 014  
20820 DEBA (Gipuzkoa)



**ALBIZU**  
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

**IGARZA**  
TABERNA

Ostolaza, 5  
DEBA  
Tel.: 943 191 197



**IZENBE**


- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA




**GENOVEVA**  
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Telf.: 943 191 818



**ZALBURDI**

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03



English Academy  
**NORTH STREET ENGLISH**

Telf. 675 714 031 - Ifar kale, 15 - Deba



**Bordatxo**  
JATETXEA

Zesterokua Plaza  
Tel.: 943 029 376  
Bazkariak: 13:00 / 16:00  
Aftariak: 20:00 / 23:00

BEREZITASUNA PARRILAN:

- Asteburuko menuak - Parrilan menuak - Mokadu eta pintxoak
- Plater konbinatuak - Etxera eramateko jakiak - Ospakizunak





# LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



**ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA**

**ETENGABEKO ORDUTEGIA**



**Astelehenetik ostiralera:**  
**8:00etatik 22:00etara**

**Zapatuetan:**  
**10:00etatik 14:00 etara**



**Eibarko Dendarien Elkarte**  
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ  
**Galdetuiguzu!**

**Doctor Antonio Murillo**

Hezur Birsorkuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria. **Lleidako Unibertsitatea eta Madril.**  
Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. **Alfonso X.a Unibertsitatea. Madril.**  
Implantologia Masterreko Irakaslea. **Lleidako Unibertsitatea.**  
Kirurgia Masterreko Irakaslea. **Salamanca Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Institutioetako Irakasle gonbidatua. **Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.**

**Doctora Ainhoa Zulueta**

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Aditua Aho Kirurgia, Periodontzian, Implantologian. **Leongo Unibertsitatea.**  
Diplomatua Aho Kirurgia. **Bartzelonako Unibertsitatea.**  
Hortz-Estetikan Diplomatua. **Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.**  
Hortz-Estetikan Diplomatua. **Autran Institutua, Bartzelona.**  
Etengabeko Formakuntza. **New York-eko Unibertsitatea.**  
Oklusioan Graduondoa. **Anibal Alonso Doktorea.**



**MUTUAK ETA ASEGURUAK**

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGÓN/STONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADI...  
**Galdetuiguzu!**



**IRAZABAL**  
clínica dental

**FINANTZIAZIO BEREZIA**

Abantaila ekonomiko handiak eta finantziario aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com